

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 111/2023 Foru Agindua, otsailaren 21ekoa. Onespena ematea gasolio profesionala erabiltzearen ondorioz hidrokarburoen gaineko zergaren itzulketa partzialerako eskubidea duten errepideko garraioko enpresei zuzenduta dagoen zenbait energia produkturen prezioa ordaintzeko aparteko eta aldi baterako laguntza kudeatu eta ordaintzeko prozedurari

Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko neurrien eta La Palmako uhartea berreraikitzen eta beste kalteberatasun egoera batzuei erantzuten laguntzeko abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuak onespena ematen dio 34. artikuluan neurri horren indarraldian Espainian matrikulatuta dauden eta, Arabako araudiaren barruan, zerga bereziak arautzen dituen otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 52 bis artikuluan jasotako Hidrokarburoen gaineko Zergaren itzulketa partzialerako eskubidea duten ibilgailuen titularrantzako aparteko eta aldi baterako laguntza bati, eta laguntza hori eskatzeko eta emateko prozedura ere arautzen du.

Prozedurari dagokionez, aipatutako abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuak ezarritakoarekin bat etorriz, otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 52 bis artikuluan eta dekretua garatzeko araudian jasotako prozedura aplikatuko da laguntza kudeatu eta ordaintzeko, eta gasolio profesionala erabiltzearen ondorioz hidrokarburoen gaineko zergaren zati bat itzultzeko izapidetutako prozedurarekin batera eta aldi berean izapidetuko da.

Horrenbestez, foru agindu honen bidez arautzen da gasolio profesionala erabiltzearen ondorioz Hidrokarburoen gaineko Zergaren itzulketa partzialerako eskubidea duten errepideko garraioko enpresei zuzenduta dagoen zenbait energia produkturen prezioa ordaintzeko aparteko eta aldi baterako laguntza kudeatu eta ordaintzeko prozedura, haren kudeaketa eta aipatutako itzulketa Arabako Foru Aldundiari dagokionean.

Ikusi da Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako txostena.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hau,

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua

1. Foru agindu honen xedea da arautzea gasolio profesionala erabiltzearen ondorioz Hidrokarburoen gaineko Zergaren itzulketa partzialerako eskubidea duten errepideko garraioko enpresei zuzenduta dagoen zenbait energia produkturen prezioa ordaintzeko aparteko eta aldi baterako laguntza kudeatu eta ordaintzeko prozedura, haren kudeaketa eta aipatutako itzulketa Arabako Foru Aldundiari dagokionean. Laguntza hori ezarri da Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko neurrien eta La Palmako uhartea berreraikitzen eta beste kalteberatasun egoera batzuei erantzuten laguntzeko abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuan.

2. Zehazki, aurreko apartatuan aipatutako laguntzaren onuradun izango dira lurralde historiko honetako zerga bereziak arautzen dituen otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 52 bis artikulua 2. apartatuan aipatutako ibilgailuen titularrak, baldin eta eskubidea badute hidrokarburoen gaineko zergaren itzulketa partzialerako, Espainian matrikulatuta dauden beren titulartasuneko ibilgailuen motorrean erregai gisa erabili den erabilera

orokorrerako gasolioari dagokionez, betiere otsailaren 27ko 17/2007 Foru Dekretuaren 1. artikuluan ezarritako baldintzetan; foru dekretu horren bidez, hidrokarburoen gaineko zergaren eta gasolio profesionalaren kontsumoarengatik zenbait hidrokarburoen txikizkako salmentaren gaineko zergaren erkidegoko tasa aplikatzeari dagozkion kuoten zati bat itzultzeko prozedura ezarri zen eta Zerga Berezien otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintza Dekretuan jasotako izenen kode aipamenak eguneratu ziren.

3. Laguntza lortzeko, txikizkako salmentarako instalazioetan erositako gasolioa otsailaren 27ko 17/2007 Foru Dekretuan araututako gasolio profesionalaren txartelak erabiliz ordaindu beharko da.

Gasolioa erosteko ordainketa modu espezifikotzat gasolio profesionalaren txartelak erabiltzea laguntza eskaeratzat hartuko da.

Gasolio hornidura otsailaren 27ko 17/2007 Foru Dekretuaren 7. artikuluan aipatzen diren kontsumo propioko instalazioetan egiten bada, laguntza jasotzeko, instalazioaren titularrak bete beharko ditu otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 52 bis artikulua aurreikusitako hidrokarburoen gaineko zergaren itzulketa kudeatzeko foru dekretu horretan ezarritako baldintzak eta betebeharrak.

2. artikulua. Laguntza kudeatzea eta ordaintzea

1. Laguntza kudeatu eta ordaintzeko, Zerga Bereziak arautzen dituen otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 52 bis artikuluan eta dekretua garatzeko araudian jasotako prozedura aplikatuko da. Ondorio horietarako, gasolio profesionala erabiltzearen ondorioz hidrokarburoen gaineko zergaren zati bat itzultzeko izapidetuko den otsailaren 27ko 17/2007 Foru Dekretuan jasotako prozedurarekin batera eta aldi berean izapidetuko da laguntza kudeatzeko prozedura.

Hilabete natural bakoitzaren amaieran, Administrazioak laguntzaren zenbatekoa kalkulatu du eta, hala badagokio, laguntza ordaintzea erabakiko du.

Ordainketa banku transferentzia bidez egingo da, onuradunak gasolio profesionala erabiltzearen ondoriozko itzulketen onuradunen eta haien titulartasuneko ibilgailuen erroldan inskribatzeko eskabidean adierazitako kontuan.

2. Gasolioa erosi zen hilabete naturala amaitu zenetik sei hilabete igaro badira emakida eta ordainketa egin gabe, eskaera ezetsizat jo ahal izango da.

3. Laguntza eskaera ebatzen duen erabakiaren aurka berraztertze errekurtsoa eta erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztu ahal izango dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean xedatutako moduan.

3. artikulua. Estatuaren laguntzei buruzko arudia betetzea

1. Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko neurrien eta La Palmako uhartea berreraikitzen eta beste kalteberatasun egoera batzuei erantzuten laguntzeko abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuak 36. artikuluan ezarritakoa betetz, laguntzak jaso aurretik, eskatzaileek honako hauek aurkeztu behar dituzte Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, foru agindu hau indarrean sartzen den egunetik laguntzen indarraldia amaitu arteko epean:

a) Erantzukizunpeko adierazpena, zeinean berariaz jaso beharko baita laguntza eskatu duen enpresarengan eragin ekonomikoa izan dutela Ukrainaren inbasioak eragindako ondorioek, nazioarteko komunitateak Errusiaren aurka ezarritako zehapenek edo Errusiak hartutako kontraneurriek.

b) Ukraina Aldi Baterako Esparru Europarra aplikatzearen edo Europako Batzordeak bere SA.102771 (2022/N) Erabakian (SA.103941 eta SA.104884 erabakiek —Ukraina Aldi Baterako Esparru Nazionala— aldatu zuten) onetsitako Aldi Baterako Esparru Nazionala aplikatzearen ondorioz jaso dituzten bestelako laguntzen idatzizko adierazpena.

Era berean, diruz lagundu daitezkeen kostu berberetarako honako hauen arabera jaso dituzten laguntzak adierazi beharko dituzte: minimis erregelamenduak, Kategorien arabera Salbuespenen Erregelamendua, Covid-19ari buruzko Aldi Baterako Esparrua eta, ohiz kanpoko gertakariak eragindako kalteak konpontzeko, Errusiak Ukraina inbaditzearen ondorioz Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.2.b) artikulua aplikatuz jaso ahal izan dituzten laguntzak.

c) Idatzizko adierazpen bat, abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuaren 36. artikuluan 1. apartatuan ezarritako baldintzetan, haiekin lotuta eta elkartuta dauden enpresak identifikatzen dituena.

2. Horrez gain, eskatzaileek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute baimendutako gehieneko zenbatekoa gainditzen duten unean, Ukraina Aldi Baterako Esparru Europarra aplikatuz edo Europako Batzordeak bere SA.102771 (2022/N) Erabakian (SA.103941 eta SA.104884 erabakiek —Ukraina Aldi Baterako Esparru Nazionala— aldatu zuten) onetsitako Aldi Baterako Esparru Nazionala aplikatuz, eta honako hauen arabera diruz lagundu daitezkeen kostu berberetarako jaso dituztenei buruzkoak ere bai: minimis erregelamenduak, Kategorien arabera Salbuespenen Erregelamendua, COVID-19ari buruzko Aldi Baterako Esparrua eta, ohiz kanpoko gertakariak eragindako kalteak konpontzeko, Errusiak Ukraina inbaditzearen ondorioz Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.2.b) artikulua aplikatuz jaso ahal izan dituen laguntzak.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Indarrean sartzea.

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta artikuluetan ezartzen diren ondorioak sortuko ditu.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 21a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA